

EUROPAKO HIZKUNTZA ZAHARRENA

JUNE AIERDI


Ikaslea

Breizeuskadi proiektuaren parte da jarraian ikusiko duzuen informazioa. Honek datu, zifra, grafiko irudi eta bideoz osatzen duen erreportajea da.

MUNDUKO MAPA KOLORETSUA

Koloreen bidez adierazita dago munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzak, gaur egun, ezagunenak edo gehien hitze egiten direnak.

Mapan agertzen diren koloreak ezkerrean agertzen diren laukitxoekin daude lotuta, horiek kolore bakoitzak zein hizkuntza den adierazten du. Horien artean: gaztelania, ingelesa, frantsesa, txinera, portugesa, Koreera, Errusiera, Alemaniera, Italiara, Arabiera, Hindustaniera, Pertsiera eta swili



Euskara, mapan agertutako koloreetan agertu ez arren, *Soziolinguistika Klusterrak* bildutako informazioa emango dizuet, haiek euskararen Datu Basetik jasotakoa.

KOKAPENA

Euskal Herria hiru zatitan banatzen da: **EAE (EUSKADI), Nafarroa eta Ipar EH.**


Bai euskadi eta bai Nafarroa, Espainian kokatzen dira, zehazki iparraldean. Pirinio mendien mendebaldean kokatzen da, Frantzia eta Espainiaren arteko muga egiten duen mendilerroaren inguruan.

· Euskadi, Europako Iberiar penintsulan eta Espainako ipar-ekialdean dago. Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak osatzen dute.


· Nafarroa ere, Europako Iberiar penintsulan, eta Espainian berriz, hego-mendebaldean kokatzen da.

KOKAPENEN ADIERAZPEN GRAFIKOAK

Hizkuntza gaitasuna (%)



Kale erabilera (%)



Zenbat biztanle daude EH-n ?

- **Nafarroan:** 650.000 inguru.
- **EAE-n:** 2 milioi inguru.
- **Ipar EH:** 300.000 inguru.
- **EH osoan:** 3 milioi inguru.

ZENBAT HIZKUNTZA DAUDE MUNDUAN?

Munduan 7000 hizkuntza daude baina gehien hitzegiten direnak eta mundu osoan ezagunenak direnak hauek dira: **ingeleza, gaztelera eta txinera.**

Mundu osoan zehar komunikatzeko beharrezkoa da gutxienez 3 hizkuntza horietatik 2 jakitea. Azkenean mundu osoan dauden hizkuntzen kopurua izugarriko handia da eta denok hizkuntza guztiak ez jakiteko 3 dira nabarmentzen direnak, munduko biztanleriaren zati handiak hizkuntza hori dakielako.



HIZKUNTZEN MAPA

Hizkuntzen mapaz aparte, mapa politiko eta fisikoak daude. Mapa politikoak ez dator bat hizkuntzen maparekin, azkenean mapa politikoak adierazten duena da munduan dauden estatu, lurralde, hiriburuen... adierazpen politiko eta administratiboak. Hizkuntzen mapak, berriz, hiztun gehien dituzten hizkuntzak adierazten ditu kolore bidez, bakarrik hiztun gehien dituztenak. Pentsa 7000 hizkuntza jarriko balira, ez litzateke ondo ikusi ez adieraziko toki faltagatik.



HIZKUNTZEN GARRANTZIA

Garrantzia duten hizkuntzak orain arte hainbeste aipatu ditudanak dira, munduan gehien hitz egiten direnak, hau da, munduaren zati handi baten biztanleriak dakienak

INGELERA



GAZTELERA



CHINERA



ESKALAREN JOKOA

Ethnologue erakundeak aitortu du 400 hizkuntza daudela munduan, milioi bat baino gehiago hiztun dituztenak.

Euskara **9.postuan** dago, kontuan hartuta 1.000.000 **euskaldun** garela. Euskara munduan hiztun gehien dituzten % 10-ean dagoela dio titularrak.

EUSKALDUNEN BANAKETA

- **Nafarroan:** 75.000 euskaldun.
- **EAE-n:** 790.000 euskaldun.
- **Ipar EH:** 57.000 euskaldun.


ZERGATIK IKUSTEN DUGU GURE BURUA HORREN TXIKI?

Kike Amonarriz euskal soziolinguistika ezagunak kaleko euskaldun jendeari "zergatik ikusten dugu gure burua horren txiki" galdera luzatu zion, eta jarraian haien erantzunak bildu ditugu.



Jendeak gehien aipatu duen arrazoia EH oso txikia dela eta hemen bakarrik euskaraz hitz egiten dela izan da. Horrez gain aipatu dute proportzioarengatik dela, erabilpen eskasagatik, hizkuntza asko daudela hiztun kopuru gehiagorekin...

Azkenean ikusten duguna da badaudela gu baino hizkuntza asko indar eta potentzia handiagoarekin eta horren ondorioz ikusten dugu geure burua horren txiki. Hiztun kopurua da kasu honetan inporta duena eta ikusi da, euskara 9.postuan egonda, hiztun kopurua handia duela.



CALVET BAROMETROA

Soziolinguistika frantsesa eta eta **barometroaren** egilea da Calvet. Barometroak hizkuntza baten bizi-indarra neurtzen du, hau da, zenbateko gaitasuna duen hizkuntza horrek etorkizunean irauteko. 563 hizkuntza, 11 aldagai 500.000-tik gora hiztun dituztenak neurtzen ditu 11 aldaien arabera. Euskara, horien artean, 51. postuan dago.

Wikipedian artikulua argitaratzen dituzten 280 hizkuntza daude, eta euskara da horietako bat. Gainera, artikulua kopuruari dagokionez, 35. postuan dago, 160.000 artikulua baino gehiagorekin.

Twitterren, berriz, 38 hizkuntzatan txiokatu liteke, eta euskara horietako bat da.

EUSKARAREN EGOERA

Uneskok munduan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak kolore eta arrisku mailen bidez sailkatu ditu.

ARRISKU MAILAK:

TXURIA: zaurgarria.

HORIA: arriskuan.

LARANJA: arrisku nabarmena.

GORRIA: arrisku larria.

BELTZA: desagertua.

Uneskok euskara arrisku mailaren kolore horian ipini du, arriskuan.

Itziar EHU-ko irakaslea da eta Uneskorekin batera euskararen informazio, zifra, datu eta grafikak aztertu eta jakinarazten ditu., Haren arabera, faktore guztietan garrantzitsuenak... belaunaldien arteko transmisioa izan da.

BELAUNALDIEN TRASMISIOA:

- **Hego EH:** Bikote mistoen artean, %80 ziurtatzen da.
- **Ipar EH:** Bikote euskaldunetan ez da transmisioa ziurtatzen.

NOLA ATERA ARMAIRUTIK 500.000 EUSKALDUN?

Ez gara 200.00 euskaldunetara ailegatzen Euskal kultura kontsumitzen dutenak, Euskaldunen 1/4.-k bakarrik kontsumitzen du euskal kultura.

Zenbaki horiek eskas samarrak dira, euskaldunen portzentaiaren %80 gutxienez izan beharko litzatekeelako Euskal kultura

kontsumitzen dutenak EUSKALDUNAK garelako.

AHOLKUAK

Hona hemen aholku sorta, Euskal kultura kontsumitzeko garaian erosoago sentitzeko:

- Euskaraz liburu bat irakurri, gutxienez.
- Berria egunkaria eta Argia aldizkaria irakurri.
- Euskaraz antzezlen bat ikustera joan.
- Etb 1 sintonizatu 1.katean.
- Instalatu euskaraz musika entzuteko app-a: *badok.eus*.

Asko laguntzen du bizitzan egiten dituzun jarduera guztiak euskaraz egileak orain gauden baino gehiago ohitu ahal izateko.

ONDORIOAK

Euskararen egoera hobeto dago Euskal Herriko biztanle guztiak pentsatzen dutena baino. Hizkuntza oso berezia da zentzu guztietan eta asko nabarmentzen da munduan, guk pentsatzen dugun baino gehiago.